

## **Nafarroako Esaera Zaharrak. Mezkiritz.**

<http://mediateka.fonoteka.com>

Nafarroako Gobernua - Gobierno de Navarra  
Euskarabidea - Instituto Navarro del Vascuence  
Nafarroako Euskararen Mediaketa - Mediateca del Vascuence de Navarra  
<http://mediateka.fonoteka.com>

Iturria:

Damaso Intza, Naparroa-ko euskal esaera zarrak, 1974.

Bertsio informatiko honen egilea:

Elea

Nafarroako Euskararen Mediaketak egindako lanak publikoak dira eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## Nafarroako Esaera Zaharrak. Mezkitz.

- 2266 *Abendue, xai uts eta gau uts.*  
Illabete ortan gau luzeak eta, batez ere Naparroan, jai-egun asko.
- 2267 *Aize egoa, eroa.*
- 2268 *Aldiz, jauna zaldiz.*  
Beartsuak ere noiz edo noiz atsegin-aldia bear du.
- 2269 *Aldiz yoaten dire zorroak errotara.*  
Aldizka etortzen dire zoritxarrak, bein bateri, bein besteari.
- 2270 *Aprille otz? ez gari t'ez agotz (lasto).*
- 2271 *Arbolari tzar bat da.*  
Ergel utsa da; edo gauzak diren baño aundiagoak esaten dabil. Arbolari = erderazko herbolario-tik artua noski.
- 2272 *Artzale ona, (e)mantzale txar.*  
Guzia beretzat nai lukena, emateko esku-motz.
- 2273 *Axeriek buztana berekin.*  
Bakoitzak bere utsak eta ajeak berekin.
- 2274 *Aurzutue ta zartzutue, beti aur-kontue.*  
Aurtzaroa ta zartzaroa; zarrak ere aur biurtzen direlako.
- 2275 *Atso zarra mukizu, sobra malizie badakizu.*  
Mozorroz jantziai esaten zaie.
- 2276 *Badakik bai zein aritzei darion ezkurre.*  
Laguntzaille onari lotzen zaionaz esaten da ori.
- 2277 *Bagoak norata duen makurgunea, arata erortzen da.*
- 2278 *Bago botaian (erorian), aise egiten da egurre.*  
Jende xeari edo zartuari aise egiten zaio irri-farra, gaizki egiña bada ere.
- 2279 *Baniz, non gogo, an zango.*  
Baniz = non-ere bainago, nonnai nagoela.
- 2280 *Baztandar tuku-tuku: kolkuan mill marrakuku.*

Batari ta besteari ziria nondik sartu dabillenez esana.

- 2281** *Bertzen beiek erroak aundi.*  
Besteen gauzak obeak iduritzen.
- 2282** *Bertzen sagoietan (saroietan) belarrak aundi.*  
Gauza bera.
- 2283** *Bertzen umeak, atsa kirets.*  
Besten aurrari utsak laster arrapatzen.
- 2284** *Bi begiek baño geiago ikusten dute lauek.*
- 2285** *Biarri (belarri) batetik sartzen zaio, ta bertzetik at(e)ratzen.*  
Atzenkorraz, edo esaten zaionaz axolik ez duenaz.
- 2286** *Eltxaur orrendako ¿ez ote zen urbillago arririk?*
- 2287** *Elurre-melurre, ez diat ire beldurre; badiat etxian arto t'egurre.*
- 2288** *Enea enetako, ta bertzena erdiz.*  
Beste batzuk berena ta bestena nai dute izan.
- 2289** *Espantu aundia!*  
Deusik gabe edo ezerezkeriaz ikaratzen dena
- 2290** *Etxamin onei nondik yoaten zaio kea?*  
Etxealde oni nondik eldu zaio ondarena?
- 2291** *Etxaminen pean ezautuko 'ute ori nor den.*  
Etxekoak dakite ori nor den.
- 2292** *Etxe bateko kontrariorik aundienak: kea, ituxure, ta andre mozkorra.*
- 2293** *Etxeko kontuak, auspean estal.*  
Ez kanpora eraman.
- 2294** *Etxeko paretak irriz asten dire, ori at(e)ratzen delarik.*  
Etxean onik ematen ez duenaz esana.
- 2295** *Etxe ontako andreak ez du etxaminetik kea ere utzi nai at(e)ratzen.*  
Bear diren gauzetarako ere ez du txanponik eman nai; ain murrizta da!
- 2296** *Etorriko da kanpotik, botako zaituena etxetik.*  
Erderaz ere ola esaten da.

- 2297 *Eure eltzeari gatz ematen asten aizela(r)ik, ikasko 'un (ikasiko dun).*  
Ire sakeleko diruz gauzak erosten astean...
- 2298 *Ez da ori nere etxera bidea.*  
Ori ez da egoki neretzat.
- 2299 *Ez izan ta bai uste.*  
Olaxe Larraun-en ere.
- 2300 *Fite erre 'ituzu bordak!*  
Agudo aspertu zera lan edo lagun edo etxe ortaz.
- 2301 *Gizon apalak, (i)purdie apal.*  
Buru edo diru gutxi duenak gauza aundirik ezin eman.
- 2302 *Gizon-erdi, lan-erdi.*  
Gaztetxo edo indar gutxikoak gizon sendoak aiñekorik ezin egin.
- 2303 *Gu beartu orduko, ugeldian (ibaian) ez da urik izein (izango).*  
Olatsu beste leku askotan ere esaten da.
- 2304 *Gure etxeko nagusiak ezpaña makur.*  
Aserre, muturturik dago.
- 2305 *Iretsi zar bat aiz.*  
Ez aiz deusekin asetzen.
- 2306 *Itze agotik (aotik) at(e)ra baño len, bi buelta emazkiok miitari.*
- 2307 *Yaten duten sanduekin ez zaitzela fiatu.*  
Jenderik onenaz ere, bizi den arte, ez fiatu...
- 2308 *Yende bearrak eroa iduri.*  
Berrak eta goseak, egingo ez liraken gauza asko eragiten.
- 2309 *Kandelera otz, negue yoan da motz: Kandelera bero, negue eldu da gero.*  
Olatsu beste toki eta izkuntzetan ere.
- 2310 *Kara kara elea franko: eta gibeletik aztalak yan.*  
Erderaz cara a casa; aurpegiz aurpegi itz ederrak, baña gero atzetik azpiak jaten.
- 2311 *Lemisik (lenik) zure burue neur zazu, zein luze ta zein mear den.*  
Iñortaz gaizki esaten asi gabe, zere buruari begira; "beleak zozoari: ipur-beltz".  
Oihenart-ek: "Urliaz gaizki erraiterakoan, ezarzikik eure faltak golkoan" (458).

- 2312 *Martxoan elurre norartio, aprillen elurra arartio.*  
Noraño, araño.
- 2313 *Mazteki yardularien ele ederrez ez fie.*  
Emakune berritsuen itz ederrez ez fia.
- 2314 *Mazteki (emakune) kontulariek, maiz bazterrak zikin.*
- 2315 *Mezkiritz eta Olondriz: ogi guti ta aur aunitz.*  
Erroibarko bi erri dire.
- 2316 *\_Nola dago? -Ez il ta ez bizi.*  
Nor bait urritsu dabil lela adiarazteko.
- 2317 *Nola in (egin), ala fin. Nola bizi ala il.*
- 2318 *Nork berea bere, moro-errian ere.*
- 2319 *Ogie erre arteraño, opile on. Ogirik ez denean artoa gozo.*
- 2320 *Ongi dabil lena Jainkoak laguntzen du.*
- 2321 *Ori eltze anitzetako zalie da.*  
Bear ez luken asko guzetan sartzen da.
- 2322 *Ori ez da bere miitik galduko.*  
Bere esanetan zuurra ta kontuzkoa da.
- 2323 *Orrek ez du bere etxea arriketuko.*  
Etxea maite du, etxekoia da.
- 2324 *Orren eltzi ai esnia yariten ez.*  
Elkorra, eutsia, zikoitza.
- 2325 *Orren nabalak (labanak) ere ba'itu bi ago(ao).*  
Bein baten aldera, gero bestearen aldera ari da.
- 2326 *Ortzeguna, atso-eguna: ortziralia, atso-aulzalia: larumbata, atso- olata.*
- 2327 *Ortziralia, begi-illun, nola argitu, ala illun, larunbata, aren lagun.*
- 2328 *Osasune, paregabeko ondasune.*
- 2329 *Otsailla, firilli-farailla.*  
Otsailla txiki eta geienian txar.

- 2330 *Pantalonei petatxue beretik eman.*  
Mozkorrak astelenian igandean bezela nai.
- 2331 *Pilotari zarra, xaxari on.*  
Markatzale on, noiz izan den falta markatzeko on.
- 2332 *Sekule ez aiz zentzuen sartiko.*  
Sekula ez aiz zentzatuko; axolakabe eta kaskariñari esaten zaio.
- 2333 *Xan Mark: balin ba'uk (baduk), emak.*  
Dirua itzultzeaz edo zorra ordaintzeaz...
- 2334 *Urrungo eltzia urrez: allegatu ta lurrez.*
- 2335 *Zakue petatxuen alde.*  
Lapurra lapurraren alde.
- 2336 *Zartagie eskutik dauke.*  
Bere eskuko da; bera da agintari.
- 2337 *Zituen (ijitoen) gise: azken itze bere.*  
Ijitoak ala omen dute. Beste leku batzutan "apezak du azken itza bere".